



Espediente mota: Administrazio kontratazioa

Kontratua: Bermeoko Udaleko kanpoko prebentzio zerbitzuko espezialitateak eskaintzeko zerbitzu kontratua, prozedura irekia sinplifikatua bidezko esleipena.

Espediente zenbakia: 2018 KON\_IS\_004

**BERMEOKO UDALEKO**  
**KANPOKO PREBENTZIO ZERBITZUKO**  
**ESPEZIALITATEAK ESKAINTZEKO**  
**ZERBITZU KONTRATUA**  
**BALDINTZA TEKNIKOEN ORRIAK**  
**PROZEDURA IREKIA SINPLIFIKATUA BIDEZKO**  
**ESLEIPENA**

**1.- KONTRATUAREN HELBURUA**

**Xedea:**

Kontratu honen helburua Bermeoko Udalean laneko arriskuen prebentzio arloko osasun zaintza eta higiene industrialaren espezialitateen zerbitzua eskaintzea da, eta aldi berean, 2020-2024 legealdirako Prebentzio Plana gauzatzeko diagnostia eta honen eginkizuna.

**Modu hertsian:**

Kontratu honen helburua lortzeko, laneko arriskuen prebentzio arloko osasun zaintza eta higiene industrialaren espezialitateen zerbitzua esleituko da, kontuan edukita esleipenduna kreditatutako Kanpoko Prebentzio Zerbitzua izan beharko dela.

Zerbitzu kontratu honek Bermeoko Udaleko langileria babestu beharko du. Guztira 200 langilerentzako zerbitzua bermatu beharko da eta honetarako ARRISKU - Laneko Prebentzio Zerbitzuaren aholkularitza eta laguntza edukiko du.

Zerbitzu kontratu honek 2019 urtean erakundeak prebentzio arloan dituen beharrezko diagnostia eta Bermeoko Udaleko VII. Prebentzio Plana 2020-2024 eperako egitea eta ezartzea bermatuko du ere.



Laneko Prebentzio Zerbitzua, Irakaskintza, 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9107  
Faxa: 94 688 5010 / [arriku@bermeo.eus](mailto:arriku@bermeo.eus) / [www.bermeo.eus](http://www.bermeo.eus) / IFK: P4802100J



Agiri hau benetakoa da, eta  
07E200010F51001728P5J0Y6C4  
kodeagaz egiaztatu daiteke  
Udalaren egoitza elektronikoa

**SINATZAILEA eta DATEA**

GAIZKA GERVASI BEITIA(P4802100J-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-ARRISKU TEKNIKARIA -  
24/07/2018  
CN=Isa izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 24/07/2018  
13 14 32

EXPEDIENTE ::  
2018KON\_IS\_0004  
Data: 21/05/2018

Und reg REGISTRO  
GENERAL



## 2.- OSASUN ZAINZTA ARLOAN ESKAINI BEHARREKO ZERBITZUA

Esleipendunak langileriaren osasun egoera kontrolatuko du eta euren osasunaren aurka eman daitezkeen edozein alterazio zainduko ditu.

Esleipendunak osasun zaintza espezialitateko jarduera zerbitzuak zeintzuk diren zehaztuko ditu, betiere, langile guztien laneko gaitasuna lortzeko asmoz.

Oro har, osasun azterketak baldintza hauetan bermatuko ditu esleipendunak:

- **Hasierako azterketa:** Lanera sartu aurretik edo osasunerako bestelako arriskuak dituzten zeregin berrietan hasi aurretik, langileen osasunaren hasierako ebaluazioa egin beharko da. Lanpostu bakoitzari ezarritako berariazko mediku protokolo jakin batzuetan oinarrituko da eta azterketa derrigorrezkoa izango da.
- **Azterketa baja luzeagatik** Osasun arazoak direla- eta luzaroan (3 hilabetetan) lanera etorri barik egon ostean lanera bueltatzen diren langileen osasunaren ebaluazioa egin beharko da (gaixotasunaren jatorri profesionalak zeintzuk diren aztertuko dira eta langileak babesteko neurri egokiak proposatzeko balioko dute).
- **Aldizkako azterketa:** Osasuna aldizka ebaluatzea (urtean behin) egin beharko da. Lanpostu bakoitzari ezarritako berariazko mediku protokolo jakin batzuetan oinarrituko dira, derrigorrezkoa izango da eta Bermeon eskaini beharko dira baimendutako osasun zentro batean.
- Arrisku zehatz batzuen eraginpean dauden langileen osasun ebaluazioa ere bermatuta egongo da; besteak beste, agente biologikoen, minbizisortzaileen eraginpean edo gaixotasun profesionalerako arriskuan dauden lanpostuetako langileei osasun ebaluazio espezifikokoak bermatuko zaizkie, betiere, osasun zaintzako medikuek proposatuta.

### 2.1. Osasun zaintzako zerbitzua emateko alde zuzenetik hartu beharreko neurriak eta planifikazioa.

- Esleipendunak, laneko gaixotasunei edota laneko istripuei aurre egiteko mediku-higiene-osasun- neurriak proposatuko ditu eta urtero dagokion plangintza egingo du.
- Esleipendunak lanpostu bakoitzaren zereginak eta arriskuak kontuan hartuta lanpostu bakoitzerako mediku protokoloen zerrenda zehaztuko du.
- Osasun zaintzako zerbitzuak, ARRISKU - Laneko Prebentzio Zerbitzuarekin koordinatuko ditu bere ekintza guztiak eta beste prebentzio espezialitate teknikoekin kudeatu.





- Osasun zaintza zerbitzuko osasun- langileek udaleko langileek izaten dituzten gaixotasunak ezagutuko dituzte, baita osasun arazoengatik egoten den absentismoa ere. Guzti hori, lantokian egon daitezkeen arriskuen eta gaixotasunen arteko loturarik dagoen jakiteko.
- Langileen osasunari buruzko datu guztiak isilpekoak izango dira eta mediku zerbitzuaren artxiboan erregistratuko dira informatikoki.
- Osasun zaintzako zerbitzuko osasun- langileek langileen osasuna ebaluatuz lortu diren emaitzak aztertuko dituzte irizpide epidemiologikoak kontuan izanda.
- Osasun zaintzako zerbitzuko osasun- langileek aztertu eta baloratu egingo dute, batez ere, umedun edo oraintsu umea eduki duten emakumeak, bereziki sentiberak diren langileak eta adineko langileak; eta beharrezkoak diren neurri prebentiboak proposatuko dute.
- Esleipendunak laneko arriskuen menpe egotearen eta osasunak izan ditzakeen kalteen artean loturarik dagoen aztertuko du eta laneko giroa eta baldintzak hobetzeko neurriak proposatuko ditu.
- Mediku azterketak egin ondoren, esleipendunak, langile bakoitzaren historia klinikoa eta lanekoa sortuko ditu.
- Bertan, lanpostuaren zereginen deskribapena egingo da, lanpostuetan dauden arriskuak, langilea zein lanpostutan egon den lehenago, zelako arriskuak izan zituen eurretan eta zenbat denbora egon den lanpostu bakoitzean zehaztuko da. Patologiaren eta istripuen arloan ere, langilearen eta haren familiaren aurrekariak agertuko dira historia klinikoan.
- Urteko memoria txostena egingo da, eta, bertan agertuko da, osasun zaintza arloan egin den guztia eta lan baldintzak hobetzeko proposatzen diren neurri zuzentzaile eta prebentiboak.

## 2.2. Esleipendunak osasun zaintzan bete beharreko oinarrizko irizpideak:

- Osasun zaintza laneko arriskuen prebentzioaren oinarrizko osagaia izan beharko da.
- Osasun zaintzak lan-medikuntzaren osasun jardueren orientazio desberdina suposatuko du.
- Ez da jarduera zerbitzu bat bakarrik izango.
- Langileen indibidualtasuna eta kolektibotasuna batu beharko ditu.



 Agiri hau benetakoa da, eta 07E200010F510017Z8P5J0Y6C4 kodeagaz egiaztatu daiteke Udalaren egoitza elektronikoa	<b>SINATZAILEA eta DATEA</b> GAIZKA GERVASI BEITIA(P4802100J-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-ARRISKU TEKNIKARIA - 24/07/2018 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 24/07/2018 13:14:32	<b>EXPEDIENTE ::</b> 2018KON_15_0004 Data 21/05/2018 Und. reg. REGISTRO GENERAL
		



- Langileen osasunaren sustapenerako elementua izango da.
- Lanpostu bakoitzean dauden arriskuen araberako mediku protokolo espezifikoetan oinarrituko da.
- Langileen intimitatearen eta osasun informazioaren konfidentzialtasuna errespetatu eta bermatu beharko ditu.
- Ez du lan diskriminaziorik sortuko.
- Ezin izango da absentismo kontrolarekin erratuko.
- Independentzia profesionala bermatuko du.

### 2.3. Zerbitzua emateko egitura eta zereginak:

Osasun Zaintzako Zerbitzuan, gutxienez, langile bi egongo dira, laneko medikuntzan aditua edo enpresako medikuntzan titulatu den osagile bat eta unibertsitateko erizaintzan titulatu den beste langile bat.

Zereginen artean, hauek edukiko dituzte:

- Bermeoko Udaleko langile bakoitzak dituen arrisku espezifikoak identifikatzea. Horretarako esperientzia eta laneko arriskuen ebaluazioa hartuko da kontuan, ARRISKU - Laneko Prebentzio Zerbitzuko teknikariarekin eta langileen ordezkariarekin lankidetzan.
- Medikuzko azterketa espezifikoen protokoloak zehaztea, lantzea eta gauzatzea; beti ere, antzemandako arriskuen arabera. Baldin badaude, Osasun Ministerioak osasuna zaintzeko dituen protokolo espezifikoak erabiliko dira.
- Langileak bere lanposturako duen gaitasuna zehaztea eta Bermeoko Udalarari jakinaraztea, hainbat arinen, zein den langilearen lan-gaitasuna eta beharrezkoa balitz, ze murrizketa, babes edota neurri prebentibo/zuzentzaile ezarri behar zaion langile bakoitzari.
- Langileari zehatz eta argi ematea mediku azterketaren gaineko argibide guztiak eta horien emaitzak.
- Medikuzko azterketen emaitzen eta osasun informazioaren isilekotasuna eta konfidentzialtasuna gordetzea eta bermatzea.
- Langileak intimitaterako eta duintasunerako duen eskubidea errespetatzea.
- Langileei eragozpen gutxien eragiten dieten mediku probak egitea eta arriskuekin proportzionalak izatea.





- Langile bakoitzaren historia klinikoa eta lanekoa edukitzea, baita langileen osasun egoera zehazteko kontrolei eta lorturiko emaitzei buruzko dokumentazioa ere.
- Arrisku bereziko taldeak babestea, besteak beste, arrisku jakin batzuen aurrean ahulagoak diren langileak, bereziki sentiberak direnak, umedun dauden emakumeak edo adineko langileak.
- Langileen osasun egoeraren emaitzen analisi orokorren berri ematea Bermeoko Udalari, irizpide epidemiologikoak kontuan hartuta.
- Gaixotasun arruntagatik lanera ez etortzeak aztertzea, bajeen eta laneko baldintzen arteko loturak identifikatzeko asmoz.
- Medikuzko azterketen ostean txertoak ezarri beharra ikusten bada, txertatze programak planifikatzea eta egitea.
- Bermeoko Udaleko langileen baitan informazioa eta formazioa zabaltzea osasun ohitura onak sustatzeko.
- Laneko Osasuneko Informazio Sanitarioko Sistema mantentzea jardueraren eremuan.
- Kanpoko prebentzio zerbitzuaren urteko prebentzio ekintzen plangintzan osasun zaintzako jarduerak ezartzea eta koordinatzea.
- Beharrezko bada, aldizkako batzarrak egin, lan osasun eta segurtasun batzordean parte hartu, zuzendaritzarekin eta hainbat teknikarirekin batzarrak egin eta beharrezko diren txosten teknikoak idatzi.

#### 2.4. Gutxienez ezarri beharko diren mediku protokolo espezifikoak

- Jarrera bortxatuak
- Kargak eskuz manipulatzeko
- Datuak bistaratzeko pantailak
- Gidatzea
- Zaratak
- Dardarak
- Eragile biologikoak
- Mugimendu errepikakorrek
- Txandaketa / Gauekotasuna
- Altueretan lanak
- Lan dermatosia
- Arnas sumingarri eta toxikoak
- Amiantoa (potentzialki eraginpean ez daudenak)
- Laneko asma
- Silikosisia eta beste neumokoniosiak



 <p>Agiri hau benetakoa da, eta 07E200010F510017Z8P5J0Y6C4 kodeagaz egiaztatu daiteke Udalaren egoitza elektronikoa</p>	<p><b>SINATZAILEA eta DATEA</b></p> <p>GAIZKA GERVASI BEITIA(P4802100J-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-ARRISKU TEKNIKARIA - 24/07/2018 CN=Isa izenpe.com ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 24/07/2018 13:14:32</p>	<p><b>EXPEDIENTE ::</b> 2018KON_IS_0004 Data: 21/05/2018 Und reg REGISTRO GENERAL</p> 
---	---	---

- Plagizidak
- Erradiazio ionizatzaileak
- Beruna
- Disfoniak
- Soldadura ebaketen keak
- Faktore Psikosozialak

Osasun Ministerioak onartutako mediku zaintza espezifikoko protokolorik ez badago, osasun zaintzako irizpideak eta prozedurak zehaztu beharko dira, bereziki gaitasun profesionalak sor dezaketen kasuetarako, beti ere, eskura dagoen bibliografia eta batutako esperientzia kontuan izanda.

## 2.5. Langileen osasuna ebaluatzea:

### 2.5.1. Mediku azterketak langilea lanean hasi aurretik:

- Bermeoko Udalak duen izaeragatik azterketa mota hauek bermatzeko zerbitzua berehalakoa izan beharko da, deitzen den egunetik hurrengo egunerako emango da hitzordua. Kontuan izan behar da langile kopuru txikia izango dela eta udalaren beharrezana berehalakoa izaten dela; beraz, baldintza hau zerbitzuaren barnean bermatu beharko da.
- Azterketa mota honen **zati orokorra** langile guztientzako berbera izango da; osasun sistema eta aparatuak aztertuko zaizkio era honetara:
  - Bihotza eta birikiak auskultatuko zaizkio.
  - Sabelaldea aztertuko zaio.
  - Bizkar-hezurra eta artikulazioak.
  - Tentsioa, pultsua eta beste konstanteak hartuko zaizkio.
  - Azterketa biometrikoa egingo zaio.
  - Odola eta gernua aztertuko dira.
  - Birikien arnasketa-ahalmena neurtuko zaio.
  - Etzanda dagoela egingo zaio bihotzeko elektrokardiograma.
  - Entzuteko gaitasuna neurtuko zaio.
  - Ikusmena aztertuko zaio.
- Azterketa honen **zati berezia** langile bakoitzak bere lanpostuan duen arriskuaren arabera egingo da. Lanpostu bakoitzean zelako arriskuak dauden jakinez gero dagozkion berriazko mediku protokoloak aplikatuko zaizkio langileari.
- Mediku azterketak egin ondoren langilearen lan-gaitasun txostenak sortuko dira eta informazioa **ARRISKU – Laneko Prebentzio Zerbitzura** bideratuko da ahalik eta arinen.





- Azterketa honen emaitzak eta gomendio zabalagoak, mediku azterketako txosten baten idatziko dira eta ARRISKU – Laneko Prebentzio Zerbitzura bidaliko dira ahalik eta arinen, langile bakoitzari emateko, beti ere konfidentzialtasuna bermatuz.



### 2.5.2. Osasunerako bestelako arriskuak dituzten zeregin berrietan hasi aurretik edo lanpostu aldaketetan egin beharreko mediku azterketak.

- Azterketa mota honetan, lanpostu eta eginkizun berriek dituzten arriskuak kontuan izanda, lanpostu berri horretarako ezarri diren berriazko mediku protokoloei buruzko azterketa egingo da, kasu bakoitzean langileak zeregin berri horietarako daukan lan gaitasuna egiaztatzeko.
- Era berean, eta langileari egin zaion azken azterketa orain urtebete baino lehenagokoa izan bada, azterketa orokor bat egingo zaio; sistema eta aparatu guztiak aztertuko dira; odol eta gernu analisia egingo zaio; gaur egun erretzaileak diren edo orain 12 hilabete baino gutxiago erretzaileak izan direnei, arnasa hartzeko gaitasuna neurtuko zaie; eta bihotzeko elektrokardiograma egingo zaie etzanda daudela.
- Mediku azterketak egin ondoren langilearen lan-gaitasun txostenak sortuko dira eta informazioa ARRISKU – Laneko Prebentzio Zerbitzura bideratuko da ahalik eta arinen.
- Azterketa honen emaitzak eta gomendio zabalagoak, mediku azterketako txosten baten idatziko dira eta ARRISKU – Laneko Prebentzio Zerbitzura bidaliko dira ahalik eta arinen, langile bakoitzari emateko, beti ere konfidentzialtasuna bermatuz.

### 2.5.3. Osasun arazoekin luzaroan egon eta gero (gutxienez 3 hilabete), lanera itzuli diren langileak ebaluatzea.

- Langile hauek sartu berri modura hartuko ditu osasun zaintza zerbitzuak eta langileari azterketa mediku orokorra eta espezifikoa egingo zaio.
- Lanetik kanpo utzi zuen prozesuak langilearen osasunean ondorioren bat utzi badu, bereziki baloratu beharko da.
- Mediku azterketak egin ondoren langilearen lan-gaitasun txostenak sortuko dira eta informazioa ARRISKU – Laneko Prebentzio Zerbitzura bideratuko da ahalik eta arinen.
- Azterketa honen emaitzak eta gomendio zabalagoak, mediku azterketako txosten baten idatziko dira eta ARRISKU – Laneko Prebentzio Zerbitzura



 Agiri hau benetakoa da eta 07E200010F51001728P5J0Y6C4 kodeagaz eginztatu daiteke. Udalaren egoitza elektronikoa	SINATZAILEA eta DATEA	EXPEDIENTE :: 2018KON_IS_0004 Data: 21/05/2018
	GAIZKA GERVASI BEITIA(P4802100J-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-ARRISKU TEKNIKARIA - 24/07/2018 CN=Isa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 24/07/2018 13 14 32	

bidaliko dira ahalik eta arinen, langile bakoitzari emateko, beti ere konfidentzialtasuna bermatuz.

#### 2.5.4. Osasuna aldizka kontrolatzea.


- Urtean behin egingo dira mediku azterketak, derrigorrezkoak izango dira eta Bermeon eskaini beharko dira baimendutako osasun zentro batean.
- Langile bakoitzari dagokion lanpostuan ezarritako berariazko mediku protokoloak aplikatuko dira eta derrigorrezko izaera izango dute.
- Azterketa mediku orokorrean langileen osasun sistema eta aparatu guztiak aztertuko dira, zati orokorrean ezartzen den moduan. Azterketa mediku orokor hau borondatezkoa izango dira.
- Amiantoari potentzialki eraginpean ez zeuden udal honetako langileei toraxeko plaka egingo zaizkie aldizka euren osasuna zaintzeko.
- 50 urtetik gorako gizonei PSA froga eskainiko zaie; eta emakumeei ferritina froga eskainiko zaie.
- Osasun azterketak egin ondoren langilearen lan-gaitasun txostenak sortuko dira eta informazioa ARRISKU – Laneko Prebentzio Zerbitzura bideratuko da ahalik eta arinen.
- Azterketa honen emaitzak eta gomendio zabalagoak, mediku azterketako txosten baten idatziko dira eta ARRISKU – Laneko Prebentzio Zerbitzura bidaliko dira ahalik eta arinen, langile bakoitzari emateko, beti ere konfidentzialtasuna bermatuz.
- Aldi berean, aldizkako mediku azterketak eman duten emaitza orokorrak Bermeoko Udalari jakinaraziko zaizkie eta gomendio mediku-higienekoak proposatuko dira urteko txosten baten.

#### 2.6. Lan gaitasun mailak

Goian aipatzen diren mediku azterketa motak egin ondoren, esleipendunak langile guztien lan gaitasun txostenak egingo ditu eta Bermeoko Udalari langileek duten lan gaitasun mailak jakinaraziko dizkie:

- GAI: Langileak bere lanpostuko eginkizun guztiak egin ditzake.
- GAITASUNA BALDINTZATUA: Langileak bere lanpostuari lotutako funtsezko eginkizunak egin ditzake, baina funtsezkoa den eginkizunen bat ezin du egin edo modu partzial baten baino ezin dezake egin.



	<p>Agiri hau benetakoa da, eta 07E200010F5100I7Z8P5J0Y6C4 kodeagaz egiaztatu daiteke Udalaren egoitza elektronikoa</p>	<p><b>SINATZAILEA eta DATEA</b> GAIZKA GERVASI BEITIA(P4802100J-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-ARRISKU TEKNIKARIA - 24/07/2018 CN=Isa izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A. C=ES - 24/07/2018 13:14:32</p>	<p>EXPEDIENTE = 2018KON_IS_0004 Data 21/05/2018 Und reg REGISTRO GENERAL</p>
--	--	--	--





- **GAITASUNA BEHAKETAN:** langileak bere lana egin dezake, baina mediku azterketetatik lortutako datuak ez dira nahikoak eta bilakaeraren eta balorazio berrien zain geratzen da. Osasun zaintza zerbitzuak langileari egoeraren jarraipena egingo dio eta Bermeoko Udala informatuta egongo da behaketarako ematen diren pausu guztiez.

- **ALDI BATERAKO EZ GAI:** langileak ezin ditu, gaur egun, bere lanpostuko funtsezko eginkizunak egin. Aldi baterako eta denboran mugatua den egoera da.

- **EZ GAI:** langileak ezin ditu bere lanpostuko funtsezko eginkizunak egin eta ez dago errekuperatzeko aukerarik.

Langileen lan-gaitasun txostenak Bermeoko Udalera bidaltzeko denboraren ezarpena zerbitzu kontratu honen esleipeneko hobekuntzarako puntuaketetan baloratuko da.

#### Planteatutako lan metodologia:

Zerbitzu kontratu hau hasi baino lehen, Bermeoko Udaleko **ARRISKU - Laneko Prebentzio Zerbitzuko** teknikariaren onespenerekin, zerbitzu-kronograma bat zehaztuko da kontratu honen lan metodologia zehazteko, beharreko zerbitzu lanak zeintzuk izango diren definitzeko eta zerbitzua betetzeko egutegia finkatzeko.

Planteatutako lan metodologia honek laneko baldintzen hobekuntzen eta osasunaren sustapena izango du helburu, beti ere langileak lanean euren segurtasun eta osasunaren babes maila hobetzeko zioaz.

Hona hemen gutxienerako zerbitzua betetzeko egin beharreko lanak:

- Bermeoko Udalak hitzordua eskatuko du, telefonoz zein idatziz, eta deitzen den egunetik hurrengo egunerako emango da eskatutako hitzordua.
- Langilea emandako orduan joango da azterketa medikoa egitera.
- Osasun zaintza eta kontrolerako azterketak eta kudeaketak egingo dira.
- Zerbitzu kontratu honetan erabakitzen den epean bidaliko zaizkio udalari langileen lan-gaitasun txostenak. Gehienez 7 egunetan.
- Zerbitzu kontratu honetan erabakitzen den epean bidaliko dira langile bakoitzaren azterketa mediku txostenak. Gehienez 20 egunetan.
- Bermeoko Udala beti egongo da informatuta osasun zaintzako zerbitzuak langile baten gainean gaitasun behaketa egoeratan ematen dituen pausu guztiez.



Agiri hau benetakoa da, eta  
07E200010F510017Z8P5J0Y6C4  
kodeagaz egiaztatu daiteke  
Udalaren egoitza elektronikoa

#### SINATZAILEA eta DATEA

GAIZKA GERVASI BEJITIA(P4802100J-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-ARRISKU TEKNIKARIA -  
24/07/2018  
CN=Isa izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A. C=ES - 24/07/2018  
13 14 32

EXPEDIENTE ::  
2018KON\_15\_0004  
Data: 21/05/2018

Und. reg. REGISTRO  
GENERAL



- Esleipendunak osasun zaintza zerbitzuari buruzko prebentzio jardueren urteko memoria egingo du eta bertan, beharrezko diren neurri prebentibo eta zuzentzaileak zehaztuko ditu.

### 3.- HIGIENE INDUSTRIALAREN ARLOAN ESKAINI BEHARREKO ZERBITZUA

Esleipendunak gaixotasun profesionalak aurreikusteko zerbitzua emango du, laneko ingurunean egon daitezkeen faktore fisikoak, kimikoak eta biologikoak identifikatuz, neurtuz, baloratuz eta neurriak proposatuz.

Esleipendunak higiene industrialaren espezialitatearen jarduera zerbitzuak zeintzuk diren zehaztuko ditu, betiere udal honetako lanpostuetan egon daitezkeen arrisku higienikoak gutxitzeko helburuarekin:

- Lanpostuen eta zereginen analisiak egin, arrisku higienikoen ebaluaketa egiteko zioaz.
- Lanpostuetan egon daitezkeen arrisku biologiko, fisiko eta kimikoen detekzioa, neurketa eta beharrezko diren neurri zuzentzaile eta prebentiboak proposatu.
- Kutsatzaile fisikoak identifikatu, neurtu eta informazioa eman **ARRISKU** – Laneko Prebentzio Zerbitzuari beharrezkoak diren txosten teknikoak eginda eta beharrezko neurriak proposatu.
- Kutsatzaile biologikoak identifikatu, neurtu eta informazioa eman **ARRISKU** – Laneko Prebentzio Zerbitzuari beharrezkoak diren txosten teknikoak eginda eta beharrezko diren neurriak proposatu.
- Kutsatzaile kimikoak identifikatu, neurtu eta informazioa eman **ARRISKU** – Laneko Prebentzio Zerbitzuari beharrezkoak diren txosten teknikoak eginda eta beharrezko diren neurriak proposatu.
- Kutsatzaile kimikoen inbentarioa eta biltegitratzeko estudioa egitea, aurkitzen diren bateraezintasunaren informea egin eta biltegitratzeko beharrezko diren neurri egokien proposamenak eskaini.
- Kutsatzaile higienikoen aurrean erabili beharko diren norberaren babeseko ekipoen eta prebentzio neurriei buruzko gomendioak eman.
- Hainbat lanpostutako langileei kutsatzaile higienikoen gaineko prestakuntza eta informazioa eman eta kasu bakoitzean beharrezko diren neurri zuzentzaileak proposatu.



- Beste prebentzioko espezialitateekin batera, ekintza prebentibo integratua bideratu.
- Beharrezko bada, aldizkako batzarrak egin, lan osasun eta segurtasun batzordean parte hartu, zuzendaritzarekin eta hainbat teknikarirekin batzarrak egin eta beharrezko diren txosten teknikoak idatzi.

### Planteatutako lan metodologia:



Zerbitzu kontratu hau hasi baino lehen, Bermeoko Udaleko ARRISKU - Laneko Prebentzio Zerbitzuko teknikariaren onespenezarekin, zerbitzu-kronograma bat zehaztuko da kontratu honen lan metodologia zehazteko, beharrezko zerbitzu lanak zeintzuk izango diren definitzeko eta zerbitzua betetzeko egutegia finkatzeko.

Planteatutako lan metodologia honek laneko baldintzen hobekuntzen eta osasunaren sustapena izango du helburu, beti ere langileak lanean euren segurtasun eta osasunaren babes maila hobetzeko zioaz.

Hona hemen gutxienezko zerbitzua betetzeko egin beharreko lanak:

- Higiene industrialaren arloko hasierako azterketa teknikoak egin prebentzio ekintzak planifikatzeko.
- Kutsatzaile biologikoei buruzko neurketak egin, txosten teknikoak egin eta langileei informazioa eta formazioa eman.
- Kutsatzaile fisikoei (zaratak, dardarak, temperatura, hezetasuna) buruzko neurketak egin, txosten teknikoak egin eta langileei informazioa eta formazioa eman.
- Kutsatzaile kimikoei buruzko neurketak egin, txosten teknikoak egin eta langileei informazioa eta formazioa eman.
- Higiene industrialaren arloari buruzko prebentzio jardueren urteko memoria egin eta beharrezko diren neurri prebentibo eta zuzentzaileak proposatu.
- Higiene industrialaren arloko langile eta zuzendaritzarentzako sentsibilizazio saioak bideratu.
- Beste prebentzioko espezialitateekin batera, ekintza prebentibo integratua bideratu eta horretarako udal honetako lan baldintzen ikuskapenak egingo ditu noizbehinka. Atal hau hobekuntza bezala baloratuko da dagokion esleipen irizpideekin eta urtean zenbat ikuskapen kopuru eskaintzen den zehaztu beharko da,



 Agiri hau benetakoa da, eta 07E200010F51001728P5J0Y6C4 kodeagaz egiaztatu daiteke. Udalaren egotza elektronikoz	<b>SINATZAILEA eta DATEA</b>	EXPEDIENTE :: 2018KON JS 0004 Data: 21/05/2018 Und. reg: REGISTRO GENERAL
	GAIZKA GERVASI BEITIA(P4802100J-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-ARRISKU TEKNIKARIA - 24/07/2018 CN=I5a izenpe.com ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 24/07/2018 13 14 32	



#### 4.- VII. PREBENTZIO PLANA (2020-2024)

Esleipendunak 2019. urtean erakundeak laneko arriskuen prebentzio arloan dituen beharrizanen diagnosis egitea bermatuko du, ondorengo Bermeoko Udaleko VII. Prebentzio Plana 2020-2024 eperako egiteko eta idazteko.

Prebentzio Plan honek, ezartzen den eperako, beharrezkoa den prebentzio ekintzen plangintza edukitzea bermatuko du, baita bere eginkizunerako eta ezarpenerako erakundeko maila desberdinei eman beharrezko prestakuntza ere.

Honetarako **ARRISKU** - Laneko Prebentzio Zerbitzuaren aholkularitza eta laguntza edukiko du.

#### 5.- PRESTAKUNTZA ETA INFORMAZIO SAIOAK

Kanpoko prebentzio zerbitzuko enpresak lan arriskuen prebentzio arloko prestakuntzarako jarduerak eskaintzeko homologatuta egon beharko dira, eraikuntzako sektorearen V. hitzarmen orokorrean eta lan arriskuen prestakuntzarako jardueren homologazioaren mantentzerako baldintzen araudian ezartzen denaren arabera.

Ahala eta guztiz ere, esleipendunak eskainiko duen prebentzio prestakuntzak azaroaren 8ko, Lan Arriskuen Prebentzioko, 31/1995, Legediaren 19. artikulua bermatu beharko du.

#### Lanpostuko prestakuntza prebentiboa

Lan arriskuen prebentzio arloko prestakuntzaren helburua ez da bakarrik langileek jakitea bere eginkizunetan zer eta zergatik egin behar dituzten lanak, baizik eta, langileek jakitea zelan eta ze baldintzatan burutu behar dituzten lan horiek. Hor dago trebakuntzaren garrantzia, jakitea gauzak zelan egin behar dituzten.

Beraz, prestakuntza ez da bakarrik arriskuak zeintzuk diren jakitea eta ze neurri ezarri behar diren eurak kontrolatzeko, baizik eta langileek ulertzea euren arteko erlazioa eta horien neurrien justifikazioen eta ezarpenen motibazioa sustatzea.

Langilea trebatu beharko da bere lanpostuan dauden arriskuak kontrolatzeko ematen zaizkion bitartekoetan, laneko ekipoen, norberaren babeserako ekipoen eta babeserako ekipo kolektiboen erabilera egokietan.



Trebakuntza saio hauetako edukiak langileen lanpostuan dauden arriskuen ebaluaketan eta bere lanpostuko eginkizunetan oinarrituta egon beharko dira eta Udaleko lan guneetan emango dira.

Lanpostuetako arriskuak kontrolatzeko langileen prestakuntza prebentiboa ezinbesteko tresna izan behar da eta laneko istripu kopuruaren gutxitzean eragin zuzena izan behar du. Horretarako esleipendunak prestakuntza teoriko eta praktikoa eskaini beharko du.

Beharrezkoa da beraz, esleipendunak hainbat prestakuntza programa eskaintzen dituela erakustea. Prestakuntza egokitua eta malgua izan behar da, erakundearen beharrezanetara egokitua eta langileei prebentzio ezagutzak eskaintzen dizkiona, konpetentzia profesionalak hobetzeko helburuarekin.

Esleipendunak eskaintzen dituen prestakuntza eta informazio programetako saio kopuruak zerbitzu kontratu honen esleipen irizpide bezala baloratuko dira dagokion puntuaketa emanda. Gutxienez 5 saio urtean.

## 6.- HIZKUNTZA ERIZPIDEAK

Bermeoko Udalean ezarrita dagoen Hizkuntza erabileraren planaren arabera, esleipen honetan eskatzen diren kanporako komunikazio guztiak **euskaraz** ere eman beharko dira.


Mota guztietako mediku azterketak, ebaluazioak, ikerketak, txostenak, memoriak, prebentzio jardueren planifikazioak, etab. euskaraz ere egingo dira; edo gutxienez, euskarari lehentasuna emanda egingo dira.

Zerbitzu kontratu hau betetzeko harremana euskaraz izango da eta arlo honetan esleipendunak eskainiko duen informazioa eta formazioa, salbuespenak salbuespen, euskaraz ere izango da, bai ahoz zein idatziz.

Esleipendunak egiten dituen proposamen, plangintza, idatzi zein kontratu honen xede den gainontzeko guztia euskaraz ere bideratuko da **ARRISKU - Laneko Prebentzio Zerbitzura**.

Bermeon, 2018ko uztailaren 15an



	<p>Agiri hau benetakoa da, eta 07E200010F510017Z8PSJ0Y6C4 kodeagaz egiaztatu daileke Udalaren egotza elektronikoa</p>	<p><b>SINATZAILEA eta DATEA</b> GAIZKA GERVASI BEITIA(P4802100J-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-ARRISKU TEKNIKARIA - 24/07/2018 CN=tsa izenpe.com ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A. C=ES - 24/07/2018 13:14:32</p>	<p>EXPEDIENTE :: 2018KON IS 0004 Data: 21/05/2018 Und reg REGISTRO GENERAL</p>
--	---	---	--



